

Arkeologia Museoa inauguratu dute Bilbon

Bizkaiko ondare arkeologikoa bildu, ikertu eta erakutsiko du atzo Bilbon inauguratu zuten museoak, Bizkaiko Arkeologia Museoak. Bilboko toki berezietako batean ireki dute: Lezamako geltoki zaharrean, Unamuno plazan, Zazpikaleen bihotzean. Museo berriak, beraz, parez pare du Euskal Museoa.

Han gorde dute orain artean bilduriko material arkeologikorik gehiena. Leku faltaren ondorioz, ordea, ezin zuten pilatutako ondarea behar bezala zaindu eta erakutsi. Hala, Bizkaiko Arkeologia Museoa zabaltzeko egitasmoa aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak 2005eko uztailen. Orduan hasi zituzten geltoki zaharra berritzeko lanak.

Atzo eguerdian inauguratu zuten, lau urteko lanen ondoren. Eta ekitaldiak kulturaren arloko ordezkari eta agintari ugari batu zituen. Bizkaiko Arkeologia Museoan izan ziren, besteak beste, Jose Luis Bilbao Bizkaiko diputatu nagusia, Josune Ariztondo Kultura diputatua, Arantza Arzamendi jarduneko Eusko Jaurlaritzako Ondare zuzendaria, Iñaki Azkuna Bilboko alkatea, Javier Biar Arte Eder museoako zuzendaria eta Juan Ignacio Bidarte Bilboko Guggenheimeko zuzendaria.

Museo berriko azpiegiturak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten denek. Orotara, 3.000 metro koadro ditu zentroak, hasiera batean iragarritakoa baino 500 gutxiago. Bost solairu ditu. Bi lur azpian daude: biltegia eta ataria. Beste bitan museoaren bilduma osatzen duten piezak daude ikusgai. Eta aldi baterako erakusketak jarriko dituzte beste batean.

Izan ere, Bizkai osoko proiektu arkeologikoak koordinatuko ditu museoak. Horrenbestez, aztarnategiren batean aurkikuntzaren bat egingo balute, Arkeologia Museoan erakutsiko lukete. Horretarako sortu dute aldi baterako erakusketen aretoa.

Bizkaiko Arkeologia Museoaren bilduma 18.000 piezak eta aztarna arkeologikok osatzen dute. Gehienak herrialdeko aztarnategietan aurkiturikoak dira, eta lurralde osoko museo txiki eta biltegietan gorderik egon dira orain arte.

Gaur-gaurkoz, Bizkaiko Arkeologia Museoko biltegian daude gehienak, 6.500 kutxatan sailkaturik. Hilarriak, hezurdurak eta zeramikak, besteak beste. Aurki hasiko dituzte katalogatzeko lanak, baina bien bitartean horiek ikusteko parada eskainiko du museoak, Josune Ariztondok jakinarazi duenez. Museo berritzailea da, halako gutxitan baitago biltegia bisitatzeko aukera, esan du Kultura diputatuak.

Duela 35.000 urteko piezak

Lemoa, Dima, Sopuerta, Sopela, Lekeitio, Kortezubi eta Foruko aztarnategietan topaturikoak dira pieza gehienak. Zaharrenek 35.000 urte dituzte, eta Lemoako Arlanpeko koban aurkiturikoak dira. Badira, halaber, pieza berriagoak baina interes handia dutenak. Esaterako, Gernikako itsasadarrean agerturiko XV. mendeko itsasontzi baten egitura. Aretoak ordena kronologikoan antolatuak daude. Solairuetako bat historiaurreari eta antzinateari buruzkoa da, eta garai horietako aztarnak daude ikusgai; bestean, ordea, Erdi Aroko eta Aro Modernokoak jarri dituzte. Era didaktikoan atonduta daude atal guztiak, eta ikus-entzunezkoek garrantzi handia dute.

Ikerketa zentroa ere badu museoak; ikertzaileentzako laborategia eratu dute, piezak zaharberritzeko gunea jartzearekin bat.

Irune Berro.